# LOS BIKUÑA EN LA HISTORIA DE LEGAZPI
# BIKUÑATARRAK LEGAZPIKO HISTORIAN



IGNACIO ARBIDE - JOSE MARIA URCELAY

# LOS BIKUÑA EN LA HISTORIA DE LEGAZPI
# BIKUÑATARRAK LEGAZPIKO HISTORIAN

IGNACIO ARBIDE - JOSE MARIA URCELAY

kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

La publicación de esta obra no implica necesariamente la conformidad de la Caja con los criterios del autor.

Obra hau argitaratzeak ez du berez adierazi nahi Gipuzkoako Kutxa egilearen erizpideekin bat datorrenik.

© GIPUZKOAKO KUTXA FUNDAZIOA
FUNDACION CULTURAL CAJA DE GIPUZKOA
Dep. Leg. S.S. 237/91
I.S.B.N.: 84-505-9921-0
Fotokonposaketa / Fotocomposición: Ipar
Imprimatzailea / Imprime: Zubi
Fotógrafos / Argazkilariak: Javier Larrea
Aurelio González
Traducción al euskera / Itzulpena euskerara: Aitor Arana

*Al estudiar la trayectoria de las familias con un papel más visible en la historia de Legazpi, destaca por su regularidad en la participación activa de la vida de dicha villa el linaje de los «Vicuña».*

*Fué cabeza de una de las «Células» de producción llamadas ferrerías que tuvieron gran importancia en la centenaria elaboración del hierro en Euskal Herria.*

*En su árbol genealógico se encuentran escribanos, abogados, militares, marinos, etc. Hombres y mujeres que aparecen y reaparecen en un intercambio fructífero con el entorno que les rodea.*

*Su casa solariega recientemente restaurada permanece como testigo valioso de la historia de un pueblo. Se prevé en el futuro sea utilizada como lugar de archivo, de estudio y de exposición de cuanto se refiere a la industria legazpiarra del hierro.*

*La Fundación Cultural Caja de Gipuzkoa se complace en presentar este nuevo título de la colección «Manuales» en el que Ignacio Arbide y José María Urcelay, estudiosos e investigadores de la historia de Legazpi, nos ofrecen una visión amplia del panorama histórico e económico de la vida de dicha villa desde el siglo XIII al XVIII y la presencia de la familia Vicuña dentro de dicho ambiente.*

*Legazpiko historian oinatz nabaria utzi duten familien nondik-norakoa ikertzerakoan, nabarmendu egiten da etengabe hiri honen bizitzan «Bikuña»tarren leinuak izan duen eskuhartze zuzena.*

*Euskal Herriko burdingintza zaharrean hainbesterainoko garrantzia izan zuten «ola» izeneko lantegietako baten buru izan zen.*

*Berauen genealogi zuhaitzean badira eskribauak, abokatuak, militarrak, itsasturuak, etab. Behin eta berriro agertzen dira Bikuñatar gizon eta emakumeak, beren herriarekiko harreman emankorrean.*

*Bikuñatarren onibar-etxeak, arestian berriztatuak, herri baten historiaren lekuko baliotsu gisa dirau. Berau artxibategi, ikertegi eta erakustoki bihurtzeko asmoa dago, burdin industriaren inguruan Legazpiko herriak egindako ekarpen guztien adierazgarri.*

*Gipuzkoako Kutxa Kultur Fundazioak atseginez aurkezten du bere «Manuales» bildumaren izenburu berri hau, zeinean Ignacio Arbide eta Jose María Urcelay Legazpiako historiaren ikertzaileak, ikuspegi zabala eskaintzen bait digute Legazpiko bizimodu historiko eta ekonomikoaren gainean, XIII. mendetik XVIII.era bitarte, Bikuñatarren familiak testuinguru honetan izandako eragina azpimarratuz.*

## *PROLOGO*

*Hace cuatro años, el Ayuntamiento de Legazpi vio la necesidad de salvar la casa-palacio de Bikuña de la ruina que, en plazo muy breve, le amenazaba. Para que el problema fuera conocido y valorado por el mayor número posible de personas, nos pidió un trabajo que, básicamente, debía contener los puntos siguientes: el papel destacado que los Bikuña han tenido en la historia de Legazpi; la importancia del propio edificio en la arquitectura rural del País Vasco; algunos posibles destinos para la casa, una vez restaurada.*

*Para desarrollar el primer punto (papel importante desempeñado por la casa de Bikuña en la historia de Legazpi) nos pareció interesante hacer un breve y sencillo recorrido por dicha historia. Ello nos iba a permitir descubrir la presencia casi continua de los Bikuña en los acontecimientos legazpiarras y, además, dar una visión de conjunto —que, para muchos, puede ser clarificadora— de lo que ha sido la vida de nuestro pueblo a lo largo de varios siglos.*

*En cuanto al segundo tema, no fue difícil encontrar testimonios de especialistas destacados en el campo de la arquitectura vasca, que resaltan la gran belleza e interés arquitectónico de la casa-palacio. Y creímos oportuno, además, hacer algunas sugerencias sobre la posible estructura urbana de un pueblo como Legazpi, que ha estado dedicado casi exclusivamente, durante su historia de varios siglos, a la industria del hierro.*

*Cuando se va a publicar este libro, la casa de Bikuña ha sido salvada, en lo fundamental, de la ruina que le amenazaba, gracias a unas obras realizadas con competencia técnica, con gusto y con cariño. Falta ahora, en una segunda y definitiva fase, dar a la casa un destino acertado, útil, con vida. Creemos que las propuestas que aparecen en la tercera parte de este libro, aunque escritas hace cuatro años, siguen siendo realistas y válidas. Por eso las mantenemos tal como fueron sugeridas, en su día, al Ayuntamiento de Legazpi.*

*Por una venturosa coincidencia, se publica este trabajo en fechas importantes para nuestro pueblo: estamos celebrando el séptimo centenario del documento de Sancho IV de Castilla, de abril del año 1290, que representa el primer testimonio escrito de la historia de Legazpi. Nuestro trabajo quiere ser hoy una modesta y gozosa aportación a estas fiestas centenarias. Y el deseo y la confianza en que a estos setecientos años cargados de vida sucederán muchos más, llenos de paz, de trabajo y de presencia fructífera de Legazpi en la historia humana.*

*Los Autores*

## *HITZAURREA*

*Orain dela lau urte, Legazpiko Udaletxeak epe motzean zeharo hondatuko litzatekeen Bikuña Dorretxea onez ateratzeko beharra ikusi zuen. Arazoa ahalik eta jende gehien ezagutu eta balora zezan, lan bat egitea eskatu zigun, bere oinarrian puntu hauek jaso behar zituena: Bikuñatarren paper nabarmena Legazpiko historian; eraikuntza berak Euskal Herriko nekazal-arkitekturan duen inportantzia; behin etxea berriztu ondoren, izan ditzakeen erabilpenak.*

*Lehenengo puntua garatzeko (hau da, Bikuña Etxeak Legazpiko Historian bete duen garrantzizko papera) interesgarria iruditu zitzaingun historia horretatik ibilbide erraz eta laburra egitea. Honek, Bikuñatarrak Legazpiko gertaera nagusienetan agertuko direla adierazi digu eta, honetaz gain, zenbait mendetan zehar gure herriaren bizitza zernolakoa izan denaren ikuspegi orokorra eman digu —askorendako ikuspegi argia izan daitekeena—.*

*Bigarren gaiari dagokionez, ez zen zaila izan etxe-jauregiaren edertasun eta interes arkitektonikoa azpimarratzen duten euskal-arkitekturan jakitun direnen aitormena aurkitzea. Eta egoki iruditu zitzaigun gainera, mende askoren historian zehar burdingintzari lotuta egon den Legazpi bezalako herri baten hiri-estrukturari buruz zenbait aholku ematea.*

*Liburu hau argitaratuko denean, Bikuña Jauregia salbaturik egongo da, gusto onez, maitasunez eta gaitasun teknikoez egin diren lanei esker bere hondamenetik ateratzea lortu delarik. Orain, bigarren eta erabateko fase batetan, etxeari helburu jakina, bizia eta erabilgarria ematea falta da. Liburu honen hirugarren zatian agertuko diren proposamenak, orain dela lau urte idatziak izan arren, baliagarriak direla uste dugu. Horregatik, bere garaian Legazpiko Udaletxeari aurkeztu zitzaizkion bezala mantenu ditugu.*

*Koinzidentziaz edo, lan hau gure herrirako egun inportanteak diren hauetan kaleratuko da: 1290. urteko apirilan, Legazpiko historian idatzizko lehen aipamena suposatu zuen Gazteluko Sancho IV.aren agiriaren zazpigarren mendeurrena ospatzen ari bait gara. Gure lan honek, mendeurreneko jai hauei egiten diogun aportazio apal eta pozgarria izan nahi du. Amaitzeko, gure desio eta konfidantza adierazi nahi dugu, biziaz zamaturiko zazpirehun urte hauen ondoren, giza-historian Legazpiren lan emankorrez beteko diren beste hainbat etor daitezen opatuz.*

*Egilleak*

# I.— BIKUÑA: UN LINAJE CON PRESENCIA ACTIVA EN LA HISTORIA DE LEGAZPI

Cuando se habla de que una casa solariega como Bikuña-Aundi es un testigo valioso de la historia de un pueblo, ¿qué se quiere decir exactamente?. Las respuestas a esta pregunta pueden ser muchas, y muy diversas.

El sólo hecho de que esa casa haya subsistido, de pie, a lo largo de los años, constituye ya un hermoso testimonio. Ha formado parte del paisaje urbano; ha sido contemplada por varias generaciones de habitantes del pueblo; con su sola presencia silenciosa, ha influído —poco o mucho— en el espíritu de los centenares de hombres que han vivido junto a ella.

Además, ha dado cobijo a los miembros de muchas familias durante varios siglos. Ello supone no sólo darles techo, sino modelar en cierta forma su espíritu y su manera de actuar. Al cabo del tiempo, no suele ser fácil distinguir con precisión hasta qué punto influyen los hombres en la configuración del entorno que les rodea o bien, a la inversa, hasta qué punto son configurados por él.

La participación de los hombres de un linaje en la vida de un pueblo o de un país tiene, a lo largo del tiempo, grados de intensidad que son, lógicamente, diversos. Hay familias que alcanzan en una o dos generaciones altas cotas de influencia social, de altura intelectual, de poderío económico, pero se desmoronan tan rápidamente como subieron; recuerdan el clásico fuego de artificio que brilla cegadoramente durante unos instantes y se apaga un momento después. En estos linajes, la casa solariega edificada en los momentos

# I.— BIKUÑA: ASKAZI BIZI ETA NABARMENA LEGAZPIKO HISTORIAN

Bikuña-Aundi bezalako sortetxe bat herriaren historiaren lekuko baliotsua dela esatean, zer esan nahi da zehazki? Galdera honi erantzun ugari eman dakizkioke eta era askotakoak gainera.

Etxe horrek urtetan zehar hortxe zutik iraute soila, lekukotasun polita da berez. Herri barruko paisaiaren zati izan da; herriko biztanleen hainbat belaunaldik ikusi dute; bere agerrera ixilaz, nola edo halako eragina izan du bere ondoan bizi izan diren ehundaka gizonen izpirituan.

Gainera, familia bakarraren edota batzuren partaideen babesleku izan da hirurehun urtetan zehar. Horrek ez du soil-soilik esan nahi berauei babesa eskaintzea, baizik eta beren izpiritu eta jokaera nolabait lantzea ere bai. Denboraren joanean, ez da erraza izaten zehaztasunez bereiztea zein neurritaraino duten eragina gizonek beren ingurumariaren itxuran edo alderantziz, zein neurritaraino duen eragina inguruak gizonengan.

Herri edota herrialde baten bizitzan, askazi bateko gizonen partehartzeak bizitasun maila ezberdinak ditu. Eta berauek, jakina, ezberdinak dira. Badira familia batzuk belaunaldi batean edo bitan eragin sozialeko maila garaiak, diru ahalmena edota altuera intelektual handiak lortzen dituztenak, baina igo bezain erraz erortzen dira maldan behera; su artifizial ezagunak gogora erazten dituzte, une bakar batean dirdir itsugarria izan ondoren itzali egiten dira. Askazi edo leinu hauetan, sasoirik onenean eraikitako sortetxea izan ohi da ia-ia

de apogeo es casi lo único que sobrevive, aportando su testimonio y su contribución a la belleza de la zona en la que está enclavada.

Pero en otros casos —y casi milagrosamente— el nivel de algunos linajes se mantiene durante siglos a alturas notables. Sus hombres y mujeres aparecen y reaparecen una y otra vez en un intercambio activo y fructífero con el pueblo, el ambiente, la vida que les rodea. El signo de ese continuo dar y recibir puede ser discutido: será negativo en momentos en que se agudicen los afanes de poder y de dominio, y positivo cuando predominen los deseos de colaboración en empresas comunes y en iniciativas que espoleen la vida del pueblo.

Al estudiar la trayectoria de las familias con un papel más visible en la historia de Legazpi, nos encontramos —como en toda colectividad humana— ejemplares de todos los tipos. Pero puestos a elegir un linaje que destaque por su regularidad en la participación activa en la vida de nuestro pueblo, nos quedaremos probablemente con el de Bikuña. Si la historia escrita de Legazpi se desarrolla desde el siglo XIII hasta nuestros días, apenas si hay —al menos entre los siglos XIII y XIX— un sólo acontecimiento importante en el que no se encuentre algún miembro de la familia Bikuña.

Su casa solariega no sólo ha sido, por tanto, un hermoso adorno para el paisaje urbano de nuestro pueblo. Tampoco ha sido, hasta hace cien años, melancólico testigo de pasados momentos de grandeza, sino que ha albergado, durante varias generaciones, imprimiéndoles en cierto modo su carácter, a muchos hombres y mujeres que han vivido intensamente los afanes, los trabajos, toda la vida de Legazpi.

irauten duen bakarra, berau kokatuta dagoen gunearen edertasunean parte hartuz eta bere lekukotasuna ekarriz.

Baina beste zenbaitetan —mirariz ia-ia— askazi batzuren mailak goiera nabarmenetan irauten du mendetan barrena. Bertako gizon eta emakumeak agertu eta berragertu egiten dira behin eta berriro herria, giroa eta inguruko bizitzarekiko trukaketa bizian. Etengabeko emate eta jasotze horren ondorioa eztabaidagarria izan daiteke: haundimaundikeria eta botere gogoak handitzean ezkorra izango da eta baikorra herriaren bizitza zuztatuko duten iniziatibetan eta elkarren arteko lanerako gogoak handitzean.

Legazpiko historian paperik nabarienetakoa izan duten familien nondik norakoa aztertzean —giza talde guztietan bezala—, era guztietako pertsonekin egiten dugu topo. Baina gure herriaren bizitza aktiboan partehartze jarraikorra izanagatik nabarmen geratzen den askazia aukeratzen hasiz gerotan, seguru aski Bikuña izeneko askaziarekin geratuko gara. Legazpi gure herri honen historia idatzia XIII. mendetik gaur egunera artekoa izanik, ia-ia ez dago gertakari garrantzizkorik bertan Bikuña familiako kideren bat azaltzen ez denik, gutxienez XIII. eta XIX. mendeen artean.

Beraz, bere sortetxea ez da soilik izan gure herriaren barnekaldeko paisaiarentzako apaingarri polita. Zera ere ez da izan —duela ehun urte arte behintzat—: joandako handitasun -garaien testigantza sotorroin edo malenkoniatsua, baizik eta, hainbat belaunalditan zehar, gizonezko eta emakumezko asko babestu ditu, nola edo hala bere izakera hauei txertatuz. Eta pertsona hauek era bizian bizi izan dituzte Legazpiren nahi, lan eta bizitza osoa.

No es fácil recoger en unas pocas páginas la aportación del linaje de Bikuña a la historia legazpiarra. Habría que citar a no menos que cuarenta o cincuenta personas, metidas en actuaciones más o menos importantes pero nunca faltas de interés, lo que daría lugar a un trabajo reiterativo y prolijo. Hemos preferido destacar brevemente los momentos salientes de la vida legazpiarra, indicando las personas que en ellos participaron. Así se podrá comprobar, sin necesidad de subrayarlo en cada caso, el papel sobresaliente de los miembros del linaje de Bikuña.

Ello nos va a permitir además aclarar (o al menos, intentarlo) algunos puntos de la historia de nuestro pueblo, que podían ser menos conocidos para los lectores.

## A/ PRIMER DOCUMENTO ESCRITO QUE HACE REFERENCIA A LEGAZPI

El primer documento escrito en el que aparece el nombre de Legazpi se debe al rey Sancho IV de Castilla, y fue dado en Valladolid en el año 1290. En él se puede leer: «... e per les hacer mas bien e mas merced, tengo por bien que las ferrerías que son en Legazpia masuqueras, que están en yermo, e les hacen robos los malos homes, e los robadores, que vengan mas cerca de la villa de Segura e las pueblen, que sean más abonadadas e más en salvo...».

Este importante documento ha sido estudiado y comentado a fondo por diversos autores (Julio Caro Baroja en «Los Vascos», Madrid 1958, página 233; Varios en «Legazpi», Legazpi 1979, página 53).

Ez da lan makala orrialde bakar batzuetan Bikuña izena duen askaziak historia legazpiarrari ekarri diona biltzea. Ekintza garrantzitsu edo ez hain garrantzitsuetan —baina ez hala ere interesik gabekoetan— ihardundako berrogei edo berrogeita hamar pertsona aipatu beharko lirateke eta hori oso lan errepikagarria eta luzea litzateke. Nahiago izan dugu bizitza legazpiarraren unerik nabarmenenak labur-labur azpimarratzea, bertan parte hartutako pertsonak aipatuz. Horrela, aldi bakoitzean azpimarratu beharrik izan gabe, Bikuñatar kideen paper beti nabarmena egiaztatu ahal izango da.

## A/ LEGAZPI AIAPAGAI DUEN LEHEN DOKUMENTU IDATZIA

Legazpi izena agertzen den lehen dokumentu idatzia, Gaztelako Santxo IV.a erregearen eskutik dator, eta Valladoliden egin zen 1290. urtean. Bertan honoko hau irakur daiteke: «e per les hacer mas bien e mas merced, tengo por bien que las ferrerías que son en Legazpia masuqueras, que están en yermo, e les hacen robos los malos homes, e los robadores, que vengan mas cerca de la villa de Segura e las pueblen, que sean mas abonadadas e mas en salvo».

Garrantzizko dokumentu hau era sakonean aztertu eta komentatu dute autore batzuek (Julio Caro Barojak «Los vascos»en, Madrilen 1958an, 233. or.; hainbatek «Legazpi»n, Legazpin 1979an, 53. or.).

Bertan antzematen zaien hainbat jakingarri alde batera utzita (Legazpiko burdingintzaren garrantzia, Gaztelarekiko lotura eta ez Nafarroarekikoa, Segurarekiko harremana), badago bat Bikuñarekiko bere erlazioa dela-eta aipatu nahi duguna:

Prescindiendo ahora de algunos aspectos que de él se derivan (importancia de la industria del hierro en Legazpi, vinculación a Castilla y no a Navarra, relación con Segura) hay uno que queremos destacar por su relación con Bikuña: la invitación que hace Sancho IV a los legazpiarras para que trasladen a Segura sus ferrerías masuqueras o «aizeolak». Les brinda allí una mayor seguridad, protegiéndoles contra los ladrones para los que las masuqueras, situadas en los lugares más apartados del monte, eran presa fácil.

A la propuesta del rey castellano respondieron varias familias legazpiarras. Don Saturnino Tellería, en su inédita «Historia de Legazpia», dice que «los ferrones de Legazpia se animaron a ir a poblar Segura, sin menoscabo de los que se hallaban en el valle, trabajando en su industria; de entre los ferrones que fueron a Segura están los del linaje del apellido Bikuña de Legazpia; del apellido Guridi de Legazpia; del apellido Elorza... como consta por escritura de venta que está en Autos página 324 en el pleito seguido entre los dueños (ferreros) y el Concejo de Legazpia».

Lope de Isasti, en su «Compendio de historia de Gipuzkoa», publicado en 1625, confirma indirectamente este traslado de familias legazpiarras a Segura. Al hablar de las casas solariegas existentes en Segura, dice: «hállanse en esta villa muchos linajes que descienden de casas solariegas de otras villas: ... Bikuña en Legazpia,... Guridis (sic) en Legazpia... Elorza en Legazpia...» (San Sebastián, 1850, páginas 112-113).

Es indudable, pues, que la familia Bikuña vivía en Legazpi, y era una de las principales en la industria del hierro ya en 1290. Pero, ¿desde cuándo se había establecido aquí?. ¿Era originaria de algún otro lugar?.

Santxo IV.ak legazpiarrei luzatzen dien gonbitea Segurara alda ditzaten beren haizeolak. Han segurtasun handiagoa eskaintzen die, lapurren aurka babestuz. Izan ere, haizeolak harrapakin errazak ziren lapurrentzat, mendietako leku urrunetan zeudelako.

Errege gaztelarraren proposamenari familia legazpiar batzuek erantzun zioten. Saturnino Telleria jaunak, inprimatu gabeko «Historia de Legazpia» bere idazlanean zera dio: «Legazpiko olagizonak Segurara joan ziren bizi izatera, haranean zeudenen ospea kaltetu gabe, beren industrian laneginez; Segurara joandako olagizonen artean Legazpiko Bikuñatarren askazikoak daude; Legazpiko Guriditarren askazikoak; Elortzatarren askazikoak... «Autos» en dagoen salmenta-eskrituran ikus daitekeen bezala, 324 orrialdean, jabeen (olagizonak) eta Legazpiko Kontseiluaren artean izandako auzian.

1625. urtean argitaratutako «Compendio de historia de Guipuzcoa» izeneko bere idazlanean, Lope de Isastik zeharka baieztatzen du familia legazpiar hauen Segurara joatea. Segurako sortetxeei buruz hitzegitean zera dio: «herri honetan badira askazi asko, jatorria beste herri batzutako sortetxeetan dutenak: ... Bikuñak Legazpin,... Guridik Legazpin, ... Elortzak Legazpin...» (Donostian 1850ean 112-113 orrialdeak).

Zalantzarik gabe esan daiteke, beraz, Bikuña familia Legazpin bizi zela, eta garrantzizkoenetako bat zela burdinaren industrian 1290ean. Baina, noizdanik zen Legazpin kokatua? Jatorria beste nonbait ote zeukan?

Ez dago galdera hauei erantzun kategorikorik ematerik. Ondoko hipotesi hauek eskaintzea baizik ezin da egin:

No se puede dar una respuesta categórica a estas preguntas. Solamente se pueden aportar las diversas hipótesis siguientes:

— Don Saturnino Tellería, en su ya mencionada «Historia de Legazpia» cree, firmemente, que los Bikuña, así como los Guridi, Elorza, etc, son linajes de ferrones que tienen su origen en el propio Legazpi. Y lo razona de la forma siguiente: la industria del hierro en este valle tiene un origen antiquísimo, anterior a la cristianización de esta zona. Hay lugares legazpiarras que, tradicionalmente, han sido conocidos como «gentil etxe» y «gentil ola». Por tanto los linajes que en 1290 dominan la técnica de elaboración del hierro y se trasladan a Segura deben llevar, forzosamente, siglos de dedicación a la industria ferrona en Legazpi.

— El Padre Gregorio López de Bikuña, en su libro «Hidalguía de Sangre (1227-1927)» supone que todas las ramas del apellido Bikuña descienden de un Juan Sánchez de Bikuña que radicaba en Alava: «Sancho Sánchez de Herdoñana, señor de la casa de Herdoñana y de la de Bikuña, cuyo hijo Sancho Sánchez de Bikuña se halló en la ... batalla de las Navas... y fue padre del referido Juan Sánchez de Bikuña tronco de todos los de este apellido». Por otra parte, el pueblo y señorío de Bikuña existían en Alava con anterioridad a este Juan Sánchez de Bikuña, y la conexión entre ellos «no es muy clara y determinante», por haber «una laguna por medio de más de dos siglos».

La hipótesis del origen alavés de los Bikuña es apoyada también por Juan de Erenchun: «El primitivo solar de este linaje radica en

— Saturnino Telleria jaunak, aipatutako «Historia de Legazpia» horretan, sendo uste du Bikuñatarrak, Guriditarrak, Elortzatarrak etabar, beren jatorria Legazpin bertan duten olagizonen askaziak direla. Eta honoko modu honetan damaigu erantzuna: Oso aintzinako sorburua du haran honetan burdinaren industriak, lurralde honen kristautzea baino lehenagokoa. Badaude Legazpin lekuak, tradizioz Jentil Etxe eta Jentil Ola bezalako izenez ezagunak. Beraz, 1290. urtean burdingintza menperatu eta Segurara aldatu ziren askaziek, derrigor izan behar zioten mendetako eskaintza eta ezagutza burdingintzari Legazpin.

— Gregorio Lopez de Bikuña Aitak «Hidalguia de sangre 1227-1927» bere liburuan uste du Bikuña deituraren adar guztiak, Araban bizi izan zen Juan Sanchez de Bikuña izeneko batengandikoak direla: «Santxo Sanchez de Herdoñana, Herdoñana etxeko jauna eta Bikuña etxeko jauna, zeinaren Santxo Sanchez de Bikuña semea... Nabas de Tolosako borrokan izan bait zen... eta aitaturiko Juan Sanchez de Bikuñaren aita izan zen, berau —semea— deitura berbera duten guztien jatorria izanik». Bestalde, Juan Sanchez de Bikuña hau baino lehenago, baziren Bikuña herri eta jaurerria Araban, eta bien arteko lotura «ez da oso argi eta zehatza», zera dagoelako; «bi mende baino gehiagoko hutsune bat bitartean». Bikuñatarren jatorri arabarraren hipotesia, Juan de Erentxunek ere indartzen du: «Askazi honen aintzinako sortetxea Bikuña izeneko herrixka arabarrean dago, Agurain izeneko herriaren barrutian... askazi honen beste adar batzuk honoko leku hauetan daude; Nafarroan Bera, Aranatz, Losarkos,

el pueblecito alavés de Bikuña, en jurisdicción de la villa de Salvatierra... otras líneas de este linaje alavés radican en Navarra en las villas de Vera, Aranaz, Los Arcos, Estella, etc. y en Gipuzkoa en las villas de Oñati, Azpeitia y Legazpia.»

¿Con cuál de las dos hipótesis debemos quedarnos?. Las razones de ambas partes tienen peso suficiente como para no inclinarnos por ninguna de ellas. Lo que parece fuera de duda es la relación entre la rama alavesa y legazpiarra, admitida ya por una autoridad en la materia como don Juan Carlos Guerra, quien a la vista de los árboles genealógicos de ambas ramas cree probable que la doña Ochanda que casó en Legazpi con Juan Martínez de Araiztegui, hacia 1480, fuera nieta o bisnieta de doña Ochanda Ruiz de Amezaga, esposa de Rodrigo Ibáñez, de la rama alavesa (ver Apéndice A: «Genealogía de los Bikuña»).

Otro hecho que puede ser tenido en cuenta es que las relaciones de Legazpi con la zona de Salvatierra y Araia (y por tanto con el pueblo de Bikuña) fueron muy estrechas durante la Edad Media y la Moderna. Porque la llanada alavesa, con su agricultura más poderosa que la de Gipuzkoa, constituía el mercado principal de los aperos y herramientas que fabricaban las ferrerías legazpiarras. Los contactos bien sea por la ruta de San Adrián o, mejor, por la de Biozkorna eran cómodos y suficientemente rápidos. Los Bikuña por tanto podían ser primitivos ferrones legazpiarras que habían extendido su negocio a tierras alavesas o, a la inversa, comerciantes de aperos o labradores alaveses que se habían ido introduciendo en la industria legazpiarra.

Lizarra etabar herrietan eta Gipuzkoan Oñati, Azpeitia eta Legazpi herrietan.

Bi hipotesi hauetako zein aukeratu behar dugu? Bi arrazoiek badute nahiko pisu eta zuhurrena da ez bataren eta ez bestearen alde azaltzea. Dena dela badirudi seguruena adar arabarraren eta legazpiarraren arteko erlazioa dela. Gai honetan aski jakituna den Juan Karlos Gerra jaunak onartua da erlazio hau eta beronen ustez, bi adarron zuhaitz genealogikoa ikusita, litekeena da Legazpin Juan Martinez de Araiztegirekin —1480 inguruan— ezkondutako Otxanda andrea, adar arabarreko Rodrigo Ibañezen emaztea zen Otxanda Ruiz de Ametzxagaren iloba edo birloba izatea (ikus A eranskina: «Genealogía de los Bikuña»).

Kontutan izan daitekeen beste gauza bat zera da; Legazpik Agurain eta Araiarekin (eta ondorioz Bikuñarekin) izandako harremanak oso estuak izan zirela Erdi Aroan eta Aro Modernoan. Izan ere, Arabako lautadako nekazaritza Gipuzkoakoa baino sendoagoa zen eta Legazpiko oletan landutako lanabes eta tresnak saltzeko lekurik garrantzizkoena. San Adriango ibilbidez edo, hobeto, Biozkornakoaz egindako kontaktuak erosoak eta aski azkarrak ziren. Beraz, agian Bikuñatarrak garai bateko olagizon legazpiarrak izango ziren, beren negozioa Araban hedatu zutenak edo, alderantziz, lanabes merkatari edo nekazari arabarrak, industria legazpiarrean pixkanaka sartuak.

Bi askaziek jatorri bera dutela jakinekoa da, zeren eta biek eraman bait zituzten blasoi berberak. Juan de Erentxunek dio: «Liburutegi nazionaleko zenbait dokumenturen arauera, Legazpiko etxeari dagozkio Bikuñatarrek dauzkaten arma berberak; arma hauek eman egin zitzaizkion 1212 urtean

El origen común de ambos linajes queda confirmado por el hecho de que ambos ostentaran los mismos blasones. Dicen Juan de Erenchun: «Según documentos de la Biblioteca Nacional, a la casa de Legazpia corresponden las mismas armas que llevan los Bikuña de Alava, y que le fueron concedidas a un caballero de este linaje que tomó parte en la batalla de las Navas de Tolosa el año 1212: de azul con una cadena de oro en situación de banda y engarzada con dos medias lunas de plata; a cada lado de la banda una estrella de oro. Bordura de gules, con sotueres de oro». Don Saturnino Tellería insiste también en este mismo tema: «... sus ascendientes (del solar de Bikuña) estuvieron en la batalla de las Navas de Tolosa y que por tal motivo este solar legazpiarra ostenta en su escudo de armas las cadenas rotas de Miramamolín..»

No debe extrañar esta presencia de legazpiarras en tal batalla puesto que Gorosabel, en su obra «Cosas memorables de Gipuzkoa», asegura que «los tercios de esta provincia se hallaron en la batalla de las Navas de Tolosa, como también en la recuperación de Ubeda, Alcoraz y de otras poblaciones de Andalucía ocupadas por los moros». (Gorosabel, «Cosas memorables de Gipuzkoa», 1967, Bilbao, tomo II, página 673).

## B/ LOS SIGLOS XIII A XVI EN LEGAZPI

Los más de trescientos años que transcurren entre 1290 (invitación de Sancho IV a los ferrones de Legazpi para que se integren en Segura) y 1608 (fecha en la que Legazpi se constituye definitivamente como villa independiente) son una continua sucesión de litigios y pleitos de todo tipo. Frente al pacífico y tranquilo discurrir de la

Nabas de Tolosako gatazkan parte hartu zuen askazi honetako zaldun bati: hondo urdina eta urrezko katea eskubitik ezkerrerantz goitik behera eta zilarrezko bi ilberek kateatua; urrezko katearen alde bietan urrezko izar bana. «Gules» izenadun moetako barne-ertza, urrezko «sotuere»ekin. Saturnino Telleria jaunak honexetaz iharduten du: «... bere aurrekoak (Bikuñako sortetxekoak), Nabas de Tolosako borrokan izan ziren eta horregatik ditu sortetxe legazpiar honek bere armarrian Miramamolinen kate hautsiak...»

Ez da harritzekoa legazpiarrik egotea, zeren eta Gorosabelek honoko hau ziurtatzen bait du «Cosas memorables de Guipuzcoa» bere idazlanean: «probintzia honen herena izan zen Nabas de Tolosako gatazkan, eta baita ere mairuek Andaluzian okupatutako Ubeda, Alcoraz eta beste herri batzuren berreskuraketan» (Gorosabel, «Cosas memorables de Guipuzcoa», 1967, Bilbo, II. tomoa, 673. orrialdea).

## B/ XIII. MENDETIK XVI.era LEGAZPIN.

1290. (Sancho IV.ak Legazpiko olagizonak Segurara joatera gonbidatu ditu) eta 1608. (Legazpi herri bezala behin betiko askatasuna lortu du) urte bitartean igarotako hirurehun urte pasa horiek mota guztietako eztabaida eta auziez beterik daude. Haraneko bizitzaren iragan paketsu eta trankilaren aurrean, ola-lanetan batez ere murgildurik eta gertaera gogor eta bortitzetatik salbuetsirik, Legazpiarren egonezin iraunkorra agertzen da, barruko eta kanpoko etsaien aurka euren eskubideak defendatzeko prest, betiere.

Baina legazpiarrak ez ziren auzitan nahita ibiltzen, epaiei eta eskribauei Gipuzkoa osoan benetan lan ikaragarria ematen zietenak olagizonak zi-

vida del valle, centrado principalmente en el trabajo de las ferrerías y exento casi por completo de hechos violentos o guerreros, aparece la constante inquietud de los legazpiarras, siempre atentos a defender sus derechos frente a enemigos internos y externos.

Los legazpiarras no pleiteaban por gusto. Es verdad que las ferrerías daban, en toda Gipuzkoa, abundante trabajo a jueces y escribanos. Pero en el caso de Legazpi concurrían una serie de factores históricos que le convertían en tierra abonada para todo tipo de conflictos de tipo legal.

Antes de 1290, el valle estaba poblado por dos grupos sociales bien diferenciados: el de quienes se dedicaban a la industria del hierro y el de los labradores y ganaderos. Los ferrones se consideraban descendientes de los primeros pobladores del valle. Eran los señores del valle, y, como tales, propietarios de sus montes, seles, molinos, etc.,

Junto a ellos, y siempre en un segundo plano, habían ido surgiendo los caseros. Por concesión de los ferrones, iban ocupando algunas tierras que tenían menos interés para el trabajo de las ferrerías. La expansión de los «baserritarras», con aparición de numerosos caseríos, tuvo un auge notable en toda Gipuzkoa a partir del siglo XIII, y alcanzaría también al valle de Legazpi. Pronto los caseros se iban a sentir con fuerza suficiente como para tratar de mejorar su situación social y económica.

La existencia de los dos grupos de ferrones y caseros originaba la necesidad de dos jurisdicciones. Los ferrones se regían por el fuero de ferrerías, que se había ido configurando desde tiempo

ren. Baina Legazpin faktore historiko ezberdinak elkartzen ziren, edozein motatako lege-arazoetarako lurra bihurtuz.

1290. urte aurretik, haranean bi gizarte-talde ondo bereiziak bizi ziren: burnia lantzen zutenak eta nekazari eta abeltzainak. Olagizonek, haranean bizi izan ziren lehenengo biztanleen ondorengoak zirela zioten: «por tradición de padres a hijos, se manifiesta que las ferrerías eran la antigua población de Legazpia, y que en tiempos de los gentiles había ferrerías en el valle».
Haraneko jauntxoak ziren eta, beraz, bertako mendi, gorta, errota... eta abarren jabeak.

Horien ondoan, eta beti bigarren plano batean, baserritarak sortzen dira.

Olagizonen emakidaz, oletako lanetarako interes gutxien zuten lurrak hasi ziren betetzen. Baserritarren hedadura honek, baserri ugarien sorkuntzarekin batera, gorakada nabarmena izan zuen Gipuzkoan XIII. mendetik aurrera eta Legazpiko harana ere harrapatuko du. Laister baserritarrek nahiko indarra izango dute beraien egoera sozial eta ekonomikoa hobetzeko ahaleginak egiten hasteko.

Olagizonen eta baserritarren bi talderen izaerak bi jurisdikzioren beharra sortuko du. Olagizonez olen foruak zituzten, garai oroitezinetik itxuratzen joan zirenak, eta ondoren idatzizko foruetan zehaztuko direnak, 1338 ko Oihartzungo Foruak bezalaxe. Gainontzeko biztanleak Areriako Alkatetzaren jurisdikzioren menpe zeuden; Alkatetza honek Aiztondo eta Sayaz ekoekin batera, Gipuzkoan herri-statusa ez zuten edo herri baten menpe ez zeuden toki eta bazterrak biltzen zituen.

po inmemorial, y que se concretó tardíamente en fueros escritos, como el de Oyarzun de 1338. El resto de la población estaba bajo la jurisdicción de la alcaldía de Areria, que, juntamente con Aiztondo y Sayaz, reagrupaba en Gipuzkoa a los lugares y aldeas que no tenían status de villa ni dependencia de alguna de éstas.

A partir de 1290, la estructura económica y social del valle de Legazpi se va a complicar todavía un poco más. Como se recordará, varios ferrones legazpiarras atendieron la invitación del rey Sancho IV para trasladar sus ferrerías masuqueras a la recientemente fundada villa de Segura. Lo hacían principalmente por razones de seguridad. Pero el cambio suponía también algunas exenciones en el pago de impuestos que hacían más tentadora la propuesta. Decía la invitación real que «cuantos hijosdalgo son y poblados o vinieren y poblar aquí adelante, que sean quitos de todo pecho ellos e los sus solares e que sean libres e que no den fonsaderas».

Por tanto, a partir de 1290, la situación de los ferrones se ha consolidado, porque a sus tradicionales privilegios se añaden los conseguidos por algunas familias por el hecho de trasladarse a Segura. Pero esta villa a la que el intento de atraer ferrones legazpiarras le ha dado un resultado solamente mediano (puesto que no parece que fueran muchos los que se trasladaron), intenta extender su influencia y poderío sobre los valles y poblados próximos. Así, en 1340, mantiene un pleito con los ferrones legazpiarras, pretendiendo que el hierro elaborado por estos ferrones pase por el camino de San Adrián y no por el habitual de Biozkorna.

Pero el triunfo de Segura se va a producir algunos años más tarde, en 1384, cuando consigue

1290. urtetik aurrera Legazpiko Haranaren gizarte eta ekonomia-estruktura korapilatuz joango da. Gogoratuko denez, zenbait olagizon legazpiarrek ola masukerak, sortu berri zen Segura Hirira eramateko Sancho IV. Erregeak egin zuen gonbiteari egin zioten kasu. Segurtasun arrazoiengatik egiten zuten batez ere. Baina leku-aldatzeak zenbait zerga-ordainketatik salbuetsita geratzea suposatzen zuen eta honek proposamena tentagarriago egiten zuen. Horrela zioen Errege-gonbidapenak: «cuantos hijosdalgo son y poblados o vinieren y poblar aquí adelante, que sean quitos de todo pecho ellos e los su solares e que sean libres e que no den fonsaderas».

Beraz, 1290.etik aurrera, olagizonen egoera indartu egin da, lehen zituzten eskubideei Segurara joateagatik zenbait familiek lortutako beste eskubideak gehitzen bait zazkie.

Baina hiri hau, zeini olagizon legazpiarren joateak erdizpurdiko emaitzak eman dizkion, (bertaratu zirenak ez bait ziren asko) inguruko haran etan herrietan bere indarra eta eragina hedatzen ahaleginduko da. Horrela, 1340. urtean Segurako herriak auzia izango du olagizon legazpiarrekin, azken hauek lantzen duten burnia San Adrianeko bidetik, eta ez ohizko Biozkornakotik, pasa dezaten nahi baitu.

Baina Seguraren garaipena zenbait urte beranduago emango da 1384ean hain zuzen, Legazpik harresiz inguratutako hirian sartzeko eskaera egin dezan lortzen duenean. Zein arrazoi zituen Legazpik hain erabaki garrantzitsua hartzeko?. Ez dirudi erraza zergati horiek ezagutzea, ez baitdago ondorioak zertan oinarritzea.

Lehenbiziko arrazoi bat aurkitu dugu, bistakoa dena: Legazpiarrek babesa eta segurtasunaren

que Legazpi pida formar parte de la villa murada. ¿Cuáles pudieron ser los motivos que indujeron a Legazpi a tomar una decisión de tanta trascendencia? No parece fácil averiguarlos, dada la escasez de testimonios sobre los que basar las conclusiones.

Hay una primera razón que parece evidente: los legazpiarras buscaban protección y seguridad en momentos de graves desórdenes y atropellos ocasionados por las luchas de bandos y por los numerosos malhechores, y la villa de Segura, de fundación real y bien defendida, podría ofrecer esa seguridad.

Además de esa primera y evidente razón, pudo haber otra, derivada de la complicada estructura social del valle. Los caseros, conscientes de su inferioridad ante los ferrones (y especialmente, ante los ferrones que se habían trasladado en 1290 a Segura), pensaron acaso que la unión con ésta podría hacer cambiar esta situación secular. La villa segurana estaba integrada principalmente por caseros y ganaderos que, en una hipotética unión con Legazpi, no iban a permitir la primacía de los ferrones de ésta. De hecho, en la escritura de anexión no aparecen citados los ferrones ni se establecen diferencias entre los vecinos del valle que ahora se les unía.

Otra ventaja adicional, que apunta en esa misma línea de apoyo a los caseros, podía ser el hecho de que, en caso de conflicto con los ferrones y sus poderosos alcaldes de ferrerías, los caseros iban a contar con la fuerza de Segura, y no (como hasta entonces) con la del alcalde de Areria, que agrupaba a un montón de valles y poblados heterogéneos, en general poco poderosos.

bila zebiltzan hamaika gaizkilek eta taldeen arteko borrokek sortzen zituzten nahaspide eta bidegabekeriei aurre egin ahal izateko. Eta Segurako Hiria da, errege-fundaziokoa eta ongi babestua, segurtasun hori, eskein dezakeena.

Lehenengo eta bistako arrazoi horretaz gain, beste bat egon zitekeen, haraneko gizarte-estruktura korapilotsutik eratorria. Baserritarrak, olagizonen aurrean (eta bereziki, 1290.ean Segurara joan ziren olagizonen aurrean) gutxiago zirenataz oharturik.

Segurarekin elkartzeak mendez-mendez egoera hau alda zitekeela pentsatu zuten. Segurako hiria baserritar eta abeltzainek osatzen zuten eta, Legazpirekin elkartu ezkero, ez lukete onartuko olagizonen lehentasuna.

Izan ere, elkartze-idazkian ez dira olagizonak aipatzen ez eta orain elkartzen den haraneko bizilagunen arteko alderik ezartzen.

Baserritarren alde jokatuko duen aparteko beste abantaila, olagizonekin eta euren alkate boteretsurekin arazoak sortuko balira baserritarrek Segurak duen indarrarekin konta zezaketela da, eta ez (ordura arte bezala) Areriako Alkatearekin, zeinek oso botere gutxi duten haran eta herri ezberdinak biltzen dituen.

Dena den ezin dugu beste arrazoi hau ahaztu: Segurarekin elkartzearen ideia Legazpik jasaten dituen antzerako segurtas ezaren arazoak dituzten inguruko beste herriek ere bultzatu dutela. Elkartzeko erabaki berdina hartu dute oso denbora laburrean Zegamak, Idiazabalek, Zerainek...



Escudo de armas del linaje de Bikuña. / Bikuña leinuaren armarria.

Y tampoco hay que olvidar otra razón: que la idea de unirse a Segura era compartida y propagada por varias entidades vecinas, metidas en problemas de seguridad similares a los que padecía Legazpi. La misma decisión fue tomada, en poco tiempo, por Cegama, Idiazabal, Cerain...

Realizada la anexión en 1384, bastarán pocos años para comprobar que había sido un error muy grave de los legazpiarras. Pronto Segura exige el pago de contribuciones que aquéllos consideraban abusivas. Ya en 1397 Legazpi denuncia el acuerdo de anexión, considerándolo amañado e ilegal.

En 1401 el rey Enrique III cedió al corregidor de Gipuzkoa Fernán Pérez de Ayala todas las tierras, montes y mortueros que la Corona poseía en ella. El Corregidor vendió a Segura las que estaban enclavadas en su término municipal. Segura pretendía, de acuerdo con esta venta, que las posesiones del Rey en Legazpi, Cegama, Idiazabal, Cerain... pasaran a pertenecerle. Pero los legazpiarras, hicieron valer una cláusula del contrato de anexión en la que se decía «que todos sus bienes así montes e hierbas como seles, etc., que finquen para nos libremente para facer de ellos lo que quisiéremos, sin parte del dicho concejo de Segura, como lo habíamos antes del contrato de sumisión».

Este tema de las tierras cedidas por Enrique III fue un motivo de litigio permanente entre Segura y sus vecinos, que se arregló paulatinamente después de repetidos y cuidadosos amojonamientos de límites, y gracias, sobre todo, a la constitución de la Parzonería General de Gipuzkoa, interesante reliquia medieval que aún subsiste entre nosotros.

Elkartzea 1384ean egin ondoren, oso urte gutxi barru konturatuko dira legazpiarrek hanka sartu eta erabaki okerra hartu dutela. Laister Segura, legazpiarrek gehiegizkotzat jotzen duten zergen ordainketak hasiko da eskatzen. 1397an Legazpik elkartze-akordioa salatuko du, okerra eta ezlegala delako.

1401.ean Enrique III. erregeak Gipuzkoako korrejidorea den Fernan Perez de Ayala jaunari utzi dizkio koroak, bertan dituen lur, mendi eta basoa. Korrejidoreak berriz, Segurako udalerrian daudenak Segura berari saldu dizkio. Segurak ordea, salmenta honen arabera, Erregeak Legazpin, Zegaman, Idiazabalen, Zerainen eta abarretan dituen jabetzak eskuratzea nahi du. Baina legazpiarrek elkartze-kontratuan klausula bat sartu dute non honako hau irakur daiteke: «que todos sus bienes asi montes e hierbas como seles, etc., que finquen para nos libremente para facer de ellos lo que quisiéramos, sin parte del dicho concejo de Segura, como lo habíamos antes del contrato de sumisión».

Enrique III.ak utzi dituen lur hauek auzi iraunkorra sortuko du Segura hiriraren eta inguruko auzokideen artean. Azkenean, pittinka-pittinka konponduko da arazoa, lurren mugaketari esker eta oraindik gure artean bizirik dirauen erdi-aroko erlikia interesgarria den Gipuzkoako Partzoneriaren zorrerari esker.

1384eko elkartzetik ondorengo lehenengo urteak legazpiarren arteko elkarketarako positiboak izango direla dezakegu. Olagizonen eta baserritarren arteko ikusiezinak ahaztu eta batera joko dute Seguraren asmoen kontra. Erreakzio baterakoi

Los primeros años transcurridos a partir de la anexión de 1384 parece que fueron positivos en cuanto a la unión de los legazpiarras entre sí. Olvidando pasadas enemistades entre ferrones y caseros, reaccionan en bloque frente a las pretensiones de Segura. Esta reacción unitaria se evidenció, especialmente, en la defensa de las tierras del valle pretendidas por Segura como consecuencia de la venta de Fernán Pérez de Ayala.

Pero esta aparente unión se quebró a los pocos años. Ya en 1407, veintitrés años después de la anexión, se produjo un hecho significativo: el rey Juan II concedió al Señor de Lazcano, Oxer de Amézqueta, los cargos de «prestamero y guarda del valle y ferrerías de Legazpia, a instancia de los dueños de estas ferrerías y de los demás moradores y vecinos del valle, quienes se quejaban de los muchos agravios y sinrazones que recibían de algunos concejos y personas poderosas (...), que por el expresado Oxer podían ser mejor guardados y defendidos en sus derechos que por otro alguno en Guipúzcoa».

Este nuevo suceso de 1407 permite entender muy bien el clima que se vivía en Legazpi en aquellos momentos. Muestra el desengaño ante la anexión. Habían buscado los legazpiarras protección y seguridad al amparo de una villa fuerte: no las habían encontrado, y volvían a pedir la antigua tutela de un linaje cabecilla de las luchas banderizas, como era el de Lazcano. Por otra parte, el espejismo de que las antiguas luchas entre ferrones y caseros iban a remitir como consecuencia de la unión con Segura empezaba a desvanecerse: si la escritura de anexión no hablaba de los ferrones como vecinos privilegiados, aquí aparecen bien diferenciados de los demás vecinos del valle.

hau Fernan Perez de Ayala jaunaren salmentaren ondorioz Segurak eskuratu nahi dituen haraneko lurrak defendatzerakoan nabari izan da.

Baina itxurazko batasun hau urte gutxi barru apurtuko da. 1407. urtean, elkartzetik hogeitahiru urte igaro eta gero, gertaera adierazgarria emango da: Juan II. erregeak Lazkanoko jauna den Oxer de Amezketa jaunari kargu berezia emango dio: «prestamero y guarda del valle y ferrerías de Legazpia, a instancia de los dueños de estas ferrerías y de los demás moradores y vecinos del valle, quienes se quejaban de los muchos agravios y sin razones que recibían de algunos concejos y personas poderosas (...), que por el expresado Oxer podían ser mejor guardados y defendidos en sus derechos que por otro alguno en Guipúzcoa».

1407.eko jazoera honek oso garbi adierazten du une haietan Legazpin bizi zen giroa eta elkartzearekiko etsipena agertzen du. Legazpiarrek babesa eta segurtasun bila joan dira hiri indartsua den Segurara baina ez dute hori aurkitu eta alderdiko borrokan buru den leinu baten, Lazkano jaunaren, babes zaharra eskatu duten berriro. Bestalde, olagizonen eta baserritarren arteko liskar zaharrak Segurarekin elkartu ezkero desagertuko direnik ez da jadanik sinisten: elkartze-idazkiak olagizonak auzotar pribilegiatu bezala hitzegiten ez badu, hemen oso ongi bereiztuta agertzen dira haraneko beste auzotarrekiko.

1407.eko gertaera honek 1418.ean izango du osagarria, Segura eta Legazpik adiskidetasun-idazkia izenpetzen dutenean. Honi buruz ikus dezagun zer dioen S. Telleria idazleak: «se pactaba que los dueños de ferrerías pagasen por contribución como si fuere un solo vecino casero, aunque tuviese una ferrería y tuviera casas en el va-





Presa que abastecía de agua a una ferrería de los Bikuña. / Bikuñatarren ola batetaraino ura zeraman urtegia.

Restos de Olazar, una de las ferrerías fundamentales en la historia de Legazpi.
Olazarreko hondarrak, Legazpiko historian oinarrizko oletariko bat.

— Jaun-andre Lazkanotarrak (eta zehazki, une hartan, Maria de Lazkano andrea) betoa jartzen ari zitzaizkien Bikari Nagusiaren aurrean Legazpi herriak egiten zituen Parroku eta Onuradun izendapen guztiei, kandidatuak aurkezteko aintzinako eskubide bat alegatuz. Legazpik ez zuen orduan onartzen eta ez zuen aurrerantzean onartuko eskubide hori eta soil-soilik egingo zuen Lazkano jauna eta Segura herriari izango ziren izendapenak adieraztea honelaxe: «izendapenaren hamabost egunen barruko eskribauaren testigantzaz eta, nahiz eta jaramonik ez eman, aurkeztu eta izendatutzat ematen zen».

— Legazpiko eliza parrokiarra «Kontseiluaren lurretan zegoen eginda bertako herritarrek eta Kontseiluak fundaturik eta beraiek hor-

— Que la iglesia parroquial de Legazpi estaba «fundada en tierra concejil por el Concejo y vecinos de ella, y dotada por ellos sin Cabildo de Segura ni casa de Lazcano, sino por los dichos vecinos de Legazpia y ferreros y gente poderosa...» En la iglesia no hay armas ni insignia alguna del Cabildo de Segura o de la casa de Lazcano, sino todo de los vecinos de Legazpi.

— En definitiva, que la villa de Segura y el señor de Lazcano se habían aprovechado de unos tiempos en los que la justicia no tenía fuerza, para hacerse con parte de los diezmos de la parroquia de Legazpi. Pero a partir de ahora, Legazpi no les iba a pagar esa parte.

Este documento de 1645 aporta un dato también interesante: en la parroquia se estaban realizando desde hacia varios años unas obras que progresaban demasiado lentamente; se habían levantado varios pilares y el crucero en piedra, pero todavía una buena parte estaba cerrada con tablas. La iglesia podía quedar terminada con un gasto de 1700 ducados, y faltaba este dinero.

Pero a pesar de que la parroquia legazpiarra consiguió así su independencia de Segura y de los señores de Lazcano, todavía iba a transcurrir un buen número de años hasta que se pudiera construir el templo que deseaban los legazpiarras. En 1693, siendo alcalde Tomás Joaquín de Bikuña, se manifestó «la necesidad que esta Villa tenía de que la fábrica de su iglesia se reparara, por la suma indecencia con que se celebran los divinos oficios, por estar levantado de pared y el resto cerrado de tablas que con el tiempo ha venido deshaciéndose con las inclemencias de aguas y

nituta Segurako Kapitulurik eta Lazkano etxerik gabe, baizik eta Legazpiko biztanleek eta olagizonek eta jende ahaltsuak berak hornituta...» Elizan ez dago ez armarik eta ez inolako ezaugarririk Segurako kapitulua-rena edo Lazkano etxearena denik, baizik eta dena legazpiarrena.

— Azken batean, Segura herriak eta Lazkano jaunak, justiziak indarrik ez zeukan garaiak aprobetxatu zituzten Legazpiko parrokiaren hamarrenaren zati bat eskuratzeko. Baina aurrerantzean Legazpik ez zien zati hori ordainduko.

1645 urteko dokumentu honek datu garrantzitsu bat ere badakar: urte batzuk lehenago hasitako obra bat egiten ari ziren parrokian eta poliki-egi egiten zuten aurrera; hainbat zutabe eta gurutzeria altxatu ziren harriz, baina zati handi bat artean oholez itxita zegoen. Elizako lana 1700 dukatetako gastuaz amai zitekeen eta diru horixe falta zen.

Baina nahiz eta parrokia legazpiarrak hala lortu Segura eta Lazkano jaunandreengandiko askapena, artean urte dexente pasako ziren harik eta legazpiarrek nahi zuten tenplua eraiki ahal izan arte. 1693an, Tomas Joakin de Bikuña alkate zelarik, aditzera eman zen «herri honek bere eliza konpontzeko zeukan beharra, oso era desegokian egiten bait ziren bertan egin beharrekoak, horma altxata eta gainontzekoa oholez itxita zeukalako. Ohol hauek denbora eta eguraldiaren eraginez deseginez joan ziren eta kanpandorrea erortzeko zorian zegoen neguko haizearen eraginez, dardar batean jartzen bait zuen bertan sartzean».

nieves, y la torre del campanario amenaza ruina con los vientos que corren en los inviernos, que le hacen temblar y penetrar en el interior de ella».

En 1695 se está recogiendo dinero en el Ayuntamiento para reparar y reedificar la iglesia. El día 20 de mayo de 1699 el visitador del obispado da licencia para reedificar la iglesia parroquial. Se nombró administrador e interventor de las obras al sacerdote legazpiarra Don Domingo Aguirre, «Misionero Apostólico». En el proyecto intervinieron varios arquitectos, como Lucas de Longo (planos iniciales), Martín de Garro y Lázaro de Laincera, Pedro de Carrera y Martín de Carrera (bóvedas y torre).

El día 17 de agosto de 1700 se colocó la primera piedra en una solemne ceremonia. Se inició con misa cantada, presidida por el Vicario Don Andrés Echeverría, el diácono don José de Bikuña y el Subdiácono don Juan Bautista de Bikuña. Se celebró luego un solemne Te Deum, y, finalmente, el alcalde Joaquín de Bikuña puso en su sitio la primera piedra.

La obra exterior de la iglesia fue terminada en 1720, y en años sucesivos se fueron completando las obras del interior (retablos, órgano, etc.).

Contribuyeron a esta obra de la iglesia todos los habitantes del pueblo y principalmente: Don Andrés Echeverría, Vicario; Don Francisco José de Bikuña Gauna y sus hijos Francisco José y Tomás Joaquín; Ignacio A. Plazaola; Juan Bautista Bikuña; Francisco Antonio Zumalabe; Juan Hurtado Mendoza; Francisco M. Plaza Lazarraga; Tomás de Ipeñarrieta e Idiáquez.

1695ean dirua biltzen ari ziren Udaletxean eliza konpondu eta birreraikitzeko. 1699ko Maiatzaren 20an gotzaitegiko bixitatzaileak eliza parrokiarra birreraikitzeko baimena eman zuen. Lanaren administratzaile eta ikustaile On Domingo Agirre «Mixiolari Apostoliko» apaiz legazpiarra izendatu zuten. Projektuan hainbat arkitektok hartu zuten parte; Lukas de Longok (haserako planuak), Martin de Garrok eta Lazaro de Laintzerak, Pedro de Karrerak eta Martin de Karrerak (gangak eta dorrea).

1700go Abuztuaren 17an lehenengo harria ezarri zen zeremonia ospatsu batean. Meza abestu batez hasi zen berau eta hauexek izan ziren buru: On Andres Etxeberria bikaria, On Jose de Bikuña diakonoa eta On Juan Bautista de Bikuña diakonordea. Ondoren «Te Deum» ospatsua egin zen eta, azkenik, Joakin de Bikuña alkateak bere lekuan ezarri zuen lehendabiziko harria.

Elizaren kanpokaldeko obra 1720an bukatu zuten eta ondorengo urteetan barruko obrak joan ziren osatuz (erretaulak, organoa etabar).

Eliza konpontzeko lan honetan herriko biztanle guztiek ihardun zuten laguntzen eta bereziki honoko hauek ibili ziren: On Andres Etxeberria; Frantzisko Jose de Bikuña Gauna jauna eta Frantzisko Jose eta Tomas Joakin bere semeak; Inazio A. Plazaola; Frantzisko M. Plaza Lazarraga; Tomas de Ipeñarrieta e Idiaketz.

### *4/ Herriko Etxeak edo Udaletxeak*

Legazpiko lehen ordenantza idatzi ezagunak 1533ko Maiatzaren 25ekoak dira. Bertan adierazten da aintzin-aintzinatik bazeudela Herri Bileran

### *4/ Casas Consistoriales*

Las primeras ordenanzas escritas de Legazpi que se conocen datan del 25 de mayo de 1533. En ellas se dice que, desde tiempo inmemorial, había en el Concejo un Jurado mayor, dos fieles, dos regidores, cuatro montañeros y dos administradores legos para administrar las rentas de la iglesia. En las segundas ordenanzas, que son de 1703, se establece la siguiente composición del Ayuntamiento: un alcalde ordinario, un teniente alcalde, dos regidores, un alguacil, un teniente de jurado, y tres mayordomos legos (uno de éstos para administrar la parroquia, otro para administrar la ermita de San Miguel, y el tercero para llevar la administración del hospital). La elección, tanto en la época de dependencia de Segura como en la posterior, se hacía por sufragio popular y en votación secreta.

Como se ve, tanto la composición del órgano que representaba al pueblo como su elección estaban reglamentadas con precisión. El número de personas que desempeñaban cargos no era, ciertamente, reducido: once según las primeras ordenanzas y nueve según las segundas, para una población que apenas pasaba de los doscientos vecinos. Pero hay un hecho que llama todavía más la atención, y es que, durante muchos siglos, Legazpi no tuvo un edificio al que se pudiera dar el nombre de «Ayuntamiento» o «Casa Consistorial».

Hay que tener en cuenta que, a pesar de la existencia de esos representantes elegidos por sufragio universal, las decisiones más importantes del pueblo se tomaban por acuerdo entre todos los vecinos reunidos para ello. Y estas reuniones, anunciadas desde la iglesia «a campana tañida»,

Epaimahai nagusia, bi fiel, bi agintari, lau mendizale eta bi administratzaile sekular elizaren errentak administratzeko. Hurrengo ordenantzetan, 1705koak berauek, Udaletxeko osaketa hau dago ezarririk: alkatea, teniente alkatea, bi agintari, udaltzain bat, epaimahai-teniente bat eta hiru etxezain sekular (bat parrokia administratzeko, beste bat San Migel baseliza administratzeko eta hirugarrena ospitaleko administrazioa egiteko). Aukeraketa, bai Seguraren menpean egondako garaian eta bai ondorengoan, herri sufragioz egiten zen eta ixilpeko botazioan.

Ikusten denez, bai herria ordezkatzen zuen taldearen osaketa eta bai beronen aukeraketa, zehaztasunez zeuden arauturik. Zereginak zeuzkaten pertsonen kopurua ez zen txikia: hamaika lehenengo ordenantzen eta bederatzi bigarrengoen arabera, berrehun biztanletatik ozta-ozta pasatzen zen herri baterako. Baina bada gauza bat atentzioa are gehiago ematen duena eta zera da; mende askotan barrena Legazpik ez zuen «Udaletxe» edota «Herriko Etxe» esan zekiokeen eraikuntzarik izan.

Kontutan izan behar da, nahiz eta herriak aukeratutako ordezkari horiek egon, herriari zegozkion erabakirik garrantzizkoenak, erabaki horiexetarako bildutako herkide guztien arteko adostasunaz hartzen zirela. Eta bilera hauek, elizako kanpaiez iragarkita, hauek bezalako leku ezberdinetan egiten ziren: elizako atarian edo elizako ate nagusian eta estalpean. Segurarekiko lotura erabakitzeko, biztanle legazpiarren bilera «plazako harrizko etxearen aurrean» izan zen. Eguraldi txarraren eraginez hobeto babesturiko lekuetan egiten ziren bilerak, ordenantzetan irakur daitekeen bezalaxe: «euria edota elurra ari duelarik, elizaren barruan».

se celebraban en lugares tan variados y poco delimitados como «los portales de la iglesia», o «las puertas principales y el cobertizo de la iglesia». Para acordar la unión con Segura, la reunión de los vecinos legazpiarras tuvo lugar «delante de la casa de piedra de la plaza». Los malos tiempos obligaban a desviar las asambleas hacia sitios mejor resguardados, tal como se puede leer en las Ordenanzas: «en tiempo de nieves o de aguas fuese dentro de la iglesia».

Cuando llegó la desanexión de Segura, el eficiente ejecutor de la cédula real, doctor Collado, dispuso que la administración de la justicia se realizara —a falta de cosa mejor— «en las casas que están frontero de la iglesia de esta villa», y trató de conseguir que el Concejo tuviera en adelante una sala donde reunirse con mayor secreto o, al menos, discreción que hasta entonces. Legazpi trató de cumplir las recomendaciones del doctor Collado, y, en abril de 1624, el alcalde Diego Martínez de Bikuña decía en un documento que deseaba terminar cuanto antes la primera Casa Concejil. Dos años después se sacó a remate, con la aclaración de que había sido «fabricada por el Concejo, cerca del hospital y con el pedazo de tierra de sembradía como para dos fanegas de trigo del mismo Concejo».

Las funciones que debía desempeñar esa primera Casa Consistorial legazpiarra eran muy variadas, y entre ellas podían contarse las de ser lugar de reunión para los representantes de la villa, cárcel para los presos, oficina de contribución para cobrar la alcabala, depósito de las transacciones comerciales del pueblo, alhóndiga para descarga y distribución del vino, e incluso escuela. Pero los legazpiarras no debían de estar muy a gusto con la Casa Concejil que se habían cons-

Seguraren menpetik irtetzea gertatzean, zedula errealaren beteerazle eraginkorrak, Collado doktoreak, justiziaren egitea «herri hontako elizaren ondoko etxeetan» egiteko agindu zuen eta ahaleginetan ihardun zuen, Herri Bilerek aurrerantzean areto bat izan zezaten ezkutuago edo, gutxienez, egokiago bildu ahal izateko ordura arte baino. Collado doktorearen gomendioak betetzen saiatu zen Legazpi eta 1624eko Apirilean, Diego Martinez de Bikuña alkateak dokumentu batean zioen lehenbailehen amaitu nahi zuela lehenbiziko Herriko Etxea. Bi urte geroago, egina zela eman zen aditzera zera esanez: «Herri Bilerak egin du ospitaletik gertu eta Bilera honexen laborantzalurra erabiliz, bi gari anega ateratzeko besteko lurra hain zuzen».

Lehenengo Herriko Etxe legazpiar hark bete beharreko zereginak era askotakoak ziren eta esan daiteke herritarren ordezkarien bilera-lekua zela, presoentzako gartzela, zerga-bulego alkabala kobratzeko, herriaren merkatal-salerosgotarako gordailu, ardoaren deskarga eta banaketarako alondegi eta eskola ere bai. Baina antza, legazpiarrak ez zeuden oso gustora eraikitako Herriko Etxearekin; agian, ez zituelako behar bezala betetzen hasieran pentsatutako helburuak; edo —ziurragoa dena— helburu horiek zabaldu egin nahi zirelako Legazpitik pasako ziren tropak ostatu ahal izateko eta gaua herrian eman behar izango zuten pertsona garrantzitsuek bertantxe eman ahal izan zezaten.

Baina bazegoen beste arrazoi bat legazpiarrak beren Herriko Etxearekin pozik ez egoteko. Eta arrazoi horren funtsa estetika zen: Udaletxe edo Herriko Etxearen ondoan eliza berriaren eraikuntza ederra zutitzen ari ziren, eta bi eraikuntzen arteko desproportzioa nabarmena izango zen. Beraz,

truído; acaso, porque no cumplía con suficiencia los cometidos para los que inicialmente iba destinada; o —lo que es más probable— porque se quería ampliar estos cometidos de forma que pudiera servir también para el alojamiento de tropas en tránsito por Legazpi y de personas importantes que tuvieran que hacer noche en el pueblo.

Pero había también otra razón que explicaba el descontento de los legazpiarras con su Casa Consistorial. Y esa razón era de índole estética: junto al Ayuntamiento se estaba levantando ya la mole hermosa de la nueva iglesia parroquial, y la desproporción entre ambos edificios iba a ser notoria. Se imponía, por tanto, la sustitución de la modesta casa concejil por otra de dimensiones más amplias, construída con materiales más nobles. El conjunto de Iglesia y Ayuntamiento sería complementado, además, con una amplia plaza que se extendería fente a ambos, cumpliendo una función no sólo estética sino también práctica, porque el pueblo tendría así comodidad para celebrar sus fiestas, sus alardes, etc.

Ya en 1719-1720, al mismo tiempo que Pedro de Carrera terminaba la obra exterior de la nueva parroquia, dibujaba también los planos para una nueva Casa Consistorial. Por dichos planos y por dos gradas que realizó en la puerta principal de la iglesia, le fueron abonados 90 reales. Pero la decisión de empezar con la obra se iba a demorar todavía algunos años, hasta que en 1729-1730 se empieza con ella; los planos fueron completados por los maestros Domingo de Abaria e Ignacio Aguirreburualde, y se elegió el terreno en el que construir la casa y la plaza. Este terreno estaba junto a la iglesia parroquial, y sus propietarios eran doña Francisca Ignacia de Bikuña (a la que se pedía media fanega de terreno), el hospi-

beharrezkoa ikusten zuten Etxe hura handiago batek ordezkatzea, matariale aberatsagoez eginiko beste batek. Elizak eta Udaletxeak osaturiko konjuntoa, bi hauen aurrean zabalduko zen plaza zabal batek osatuko zuen, ez soilki zeregin estetiko batez, baizik eta baita ere zeregin praktikoaz, zeren eta herriak horrela erosotasunez ospatu ahal izango bait zituen bere jai eta agertaldiak.

1719-1720an, Pedro de Karrera parrokia berriaren kanpokaldeko lana amaitzen ari zen aldi berean, Udaletxe edo Herriko Etxe berri baterako planuak marrazten ari zen. Planu hauengatik eta elizako ate nagusian egindako bi harmailagatik, 90 erreal ordaindu zitzaizkion. Baina lanari ekin bitartean, artean urte batzuk pasa behar, harik eta 1729-1730ean lanari lotu arte: planuak Domingo de Abaria eta Inazio Agirreburualde maisuek osatu zituzten eta Etxea eta plaza eraikitzeko terrenoa aukeratu zen. Terrenoa eliza parrokiarraren ondoan zegoen eta hauexek ziren jabeak: Frantziska Inazia de Bikuña (beroni anega erdiko terrenoa eskatzen zitzaion), Legazpiko ospitalea (28 postura eskatzen zitzaizkion) eta eliza parrokiarra (20 postura). Akordio batera iritsi ziren hiru jabeekin, beren terrenoen truke baten bidez.

Diru zailtasunak handiak eta etengabeak izan arren, Udaletxea izango zen eraikuntza ederra haziz joan zen. Gaur egun Legazpin dagoen berbera da eta oraindik ere miretsi daiteke bere aurrekalde armoniatsua, Ormakioko harrobitik ekarritako harlanduaz egina. 1752 urtean amaituko zuten seguruenik, zeren eta urte hartan jarri bait zituzten Jose Urmeneta maisuak egindako burdinezko balkoiak.

tal de Legazpi (al que se pedían 28 posturas) y la iglesia parroquial (20 posturas). Se llegó a un acuerdo con los tres propietarios, mediante una permuta de sus terrenos.

A pesar de las constantes y graves dificultades económicas, el hermoso y bien proporcionado edificio de la Casa Consistorial se fue elevando. Es el mismo que hoy existe en Legazpi, y aún se puede admirar su fachada principal, llena de armonía, realizada con piedra de sillería procedente de la cantera de Ormakio. Debió de quedar terminada hacia el año 1752 puesto que, en ese año, fueron colocados los balcones de hierro forjado que construyó el maestro José Urmeneta.

### *5/ Vida Municipal. Nuevas Ordenanzas*

Los edificios de la iglesia parroquial y de la Casa Consistorial, todavía hoy perfectamente capaces para desempeñar el cometido para el que fueron construídos hace doscientos cincuenta años, son un testimonio vivo de la rica actividad de Legazpi en aquellos momentos. Pero la vida legazpiarra era, lógicamente, mucho más que eso, y es imposible resumirla en unas pocas páginas. La base y el fundamento de toda ella estaban constituídas por el trabajo callado de cada día, realizado por los caseros, los carboneros, los mineros, los ferrones. Pero a veces se encuentran pinceladas que rompen esa monotonía del laborar diario. Así, por ejemplo, se afianzan las fiestas de la Cruz de Mayo, dándose en ellas incluso corridas de toros ensogados. Llegan momentos de angustia, como la plaga de gusanos de 1615 que secó todos los árboles frutales de la villa, o las periódicas inundaciones, o el hambre terrible de 1699 provocada por la falta de trigo. Se repite

### *5/ Udal-bizitza. Ordenantza berriak*

Duela berrehunda berrogeita hamar urte eraikitako eliza parrokiarra eta Udaletxea, gaur egun ere badira gauza beren zereginak (orduan ezarriak) betetzeko. Bi eraikuntza hauek Legazpiren ordungo iharduneraren lekuko biziak dira. Baina bizitza legazpiarra, jakina, hori baino askoz ere gehiago zen eta ezinezkoa da orrialde bakar batzuetan laburbiltzea. Bizitza honen oinarri eta funtsa baserritar, ikazkin, meatzari eta olagizonen egunerroko lan ixilak osatzen zituen. Baina badira lanaren egunerokotasuna hausten duten zertzelada batzuk. Adibidez, tinkotu egin ziren Maiatzeko Gurutze Santuaren jaiak, bertan zezen lotuen zezenketak ere eginez. Larrialdiak ere izan ziren, hala nola, 1615eko har-izurritea, herriko fruitu arbola guztiak ihartu zituena, edo aldian aldiko uholdeak edo 1699an izandako gosete ikaragarria, gari ezak sortua. Gizateria bera bezain zaharra den beste izurrite bat ere gertatu zen: gerra, eta beronek eragin zuen, adibidez, Legazpik berrogeita hamabost gaztetako soldadu talde bat, Diego Martinez de Bikuña kapitainak aginduta, Condé printzearen tropa frantsesei 1638ko Uztailean aurre egiten ari zitzaien ejerzitoarekin batzera joatea. Berri txar horiekin batera badaude gaur egun harrigarriak zaizkigunak; 1696an legazpiarrek, Oñatiar eta Urretxuar batzuek lagunduta, berrehunen bat kilotako hartz handi bat akatu zuten Aizkorri mendian, hainbat aldiz aipatu ziren Udaletxeak artalde legazpiarrak zigortzen zituzten otsoak akatuko zituztenei ematen zizkien sariak; 1667an, Migel Asentsio de Bikuña y Basauri alkateak Legazpi herrian eperrik ez ehizatzeko dekretatu zuen, bestela 50 dukat ordaindu beharko bait ziren...

Udal-bizitza legazpiar aberats hori 1533. urteko ordenantza batzuek aginduta zegoen. Baina

también otra plaga tan vieja como la Humanidad: la guerra, que obliga, por ejemplo, a que Legazpi envíe una compañía de cincuenta y cinco mozos, mandada por el capitán Diego Martínez de Bikuña, a integrarse en el ejército que, en julio de 1638, hace frente a las tropas francesas del príncipe de Condé. Junto a esas noticias dramáticas hay otras que hoy nos dejan asombrados o incrédulos; en 1696, los legazpiarras, acompañados por gente de Oñati y Urretxu, matan en el monte Aizkorri un enorme oso que pesó unos doscientos kilos; en varias ocasiones se habla de los premios que el Ayuntamiento daba a quienes mataran los lobos que diezmaban los rebaños legazpiarras; en 1667, el alcalde Miguel Ascensio de Bikuña y Basauri decretó que no se cazaran perdices en el término municipal de Legazpi, bajo la multa de 50 ducados...

Esa rica vida municipal legazpiarra estaba regida por unas ordenanzas que databan del año 1533. Pero los cambios operados desde aquella fecha, y, especialmente, a partir de la desanexión de Segura en 1608, exigían tener unas normas de actuación municipales más amplias y completas. El desajuste se manifestaba en hechos tan importantes como la manera de llevar las cuentas en el Ayuntamiento: en 1676, el concejo debió de encontrarse metido en tal desbarajuste burocrático, que acudió al presbítero legazpiarra don Domingo de Aguirre «para que arreglase y ordenara las cuentas y documentos de esta Villa». La petición a don Domingo se hizo oficialmente y con la mayor solemnidad, en una reunión a la que asistieron numerosos vecinos: entre ellos estaban Francisco de Bikuña y Gauna, que se indica era Caballero de la Orden de Alcántara, Miguel Ascensio de Bikuña Basauri y Joaquín de Bikuña.

La colaboración de don Domingo de Aguirre con el Ayuntamiento no terminó ahí. Conforme

urte horrez geroztik gertaturikoek, udal-iharduera zabalago eta osatuagoentzako arau batzuk edukitzeko eskatzen zuten. Desegokitzea nabarmena zen Udaletxeko kontuak eramateko modua bezalako egintza garrantzizkotan: 1676an, Herri Bilerakoak hain nahaste-borraste burokratiko handian sartuta egon ziren, On Domingo de Agirre beretergo legazpiarrarengana jo zuten «herri honetako dokumentu eta kontuak ordenatu eta txukun zitzan». On Domingori eginiko eskaria ofizial eta ospatsuki egin zen, herkide asko izandako bilera batean: beauen artean Frantzisko de Bikuña y Gauna —Alcantarako Ordenako zalduna zela zehazten da—, Migel Asentsio de Bikuña Basauri eta Joakin de Bikuña zeuden.

On Domingo de Agirrek Udaletxearekin izandako lankidetza ez zen hartan amaitu. Arestian irakurri dugunaren arabera «Mixiolari Apostoliko» legazpiar eragile eta eraginkorra, hainbat gotzairen konfidantzazko gizona, 1699an eliza parrokiar berriko obra edo lanen administratzaile, eta ikustaile ere bai, izendatu zuten. Gauza lojikoa berau, kontutan izanik 1693az geroztik eliza horretako parrokua eta berriztaketa lanaren eragile handia zela.

Esandako guztiak —hasi Udaletxeko diru arazo eta arazo administratiboak ezagutzetik eta segi parroku eran bizitza legazpiarra inork ez bezala ezagutzeraino—, zera eragin zuen: On Domingo pertsonarik egokiena izatea udal-ordenantza berriak egiteko, 1533koak ordezkatuko zituztenak eta 1705an aldarrikatutakoak.

vimos más arriba, el activo y eficaz «Misionero Apostólico» legazpiarra, hombre de confianza de varios obispos, fue nombrado también, en 1699, administrador e interventor de las obras de la nueva iglesia parroquial, cosa lógica si se tiene en cuenta que, desde 1693, era párroco de dicha iglesia y el principal impulsor de su renovación.

Todo lo anterior, desde el conocimiento de los problemas económicos y administrativos del Ayuntamiento, hasta el hecho de conocer como nadie la vida legazpiarra que él pulsaba diariamente como párroco, hizo de don Domingo la persona ideal para elaborar unas nuevas ordenanzas municipales, que sustituyeron a las de 1533, y que fueron promulgadas en 1705.

### *6/ Apoyos en la corte*

Se ha hablado, en muchas publicaciones, de la gran influencia y poder que los secretarios vascos llegaron a tener en las Cortes de los Austrias y de los Borbones. Hombres fieles, silenciosos y eficaces, gozaron de la confianza de Carlos V, de Felipe II, de todos los Austrias en general y de los primeros Borbones. Son de sobra conocidos los Garibay, Idiaquez, Zabala, Eraso, Amezqueta, etc. A ellos hay que añadir otros de menor relieve histórico, pero igualmente influyentes en el tinglado de secretarios, escribanos y administradores públicos que giraban en torno a los reyes: los Lazarraga de Oñati y Legazpi, hombres de confianza de Carlos V y de sus sucesores; los Ipeñarrieta y Galdos de Urretxu, tan apreciados en las Cortes de Felipe III y Felipe IV,...

Este tema de los hombres influyentes en la Corte merecería la pena de ser estudiado con profundidad. Porque la emancipación de Legazpi con relación a Segura nos hace pensar que los legazpiarras dispusieron en aquellos momentos de muy

### *6/ Laguntza gortean*

Argitalpen askotan aipatu izan da idazkari euskaldunek Austriarren eta Borbondarren Gorteetan izandako eraginkortasuna eta boterea. Gizon leial, ixil eta eraginkor hauek, Karlos V.aren, Felipe II.aren, orokorki Austriar guztien eta lehen Borbondarren konfidantza izan zuten. Sobera ezagunak dira Garibai, Idiaketz, Zabala, Eraso, Amezketa etabar. Berauei garrantzi historiko ez hain handiko beste eskribau eta administratzaile publiko batzuk gehitu behar zaizkie, erregeen inguran zebiltzanak eta gainera idazkarien munduan lehenagokoen eraginkortasun berekoak: Oñati eta Legazpiko Lazarragatarrak, Karlos V.aren eta bere ondorengoen konfidantzazko gizonak; Urretxuko Ipeñarrieta eta Galdostarrak, Felipe III. eta Felipe IV.aren Gorteetan hain preziatuak.

Gortean eragina zuten gizonen gai honek sakon ikertzea merezi luke. Zeren eta Legazpiren Segurarekiko askatzeak pentsaerazten bait digu une haietan legazpiarrek gortean oso lotura onak zeuzkatela. Nolatan gerta daiteke bestela berrehun biztanledun herri txiki bat Gipuzkoa osoan lehena izatea lotuta zegoen herriarekiko —Segura— askapena lortzen? Nolatan galerazi ahal izan ote zituen Legazpik Segurak —Gortean lagun ugari eta ahaltsuak zeuzkanak— deslotura-dekretua galdu zedin asmatutako jukutriak?

Galdera hauen erantzun posible bakarra zera da: Legazpik ere hari eraginkorrak mugitu zituen goikaldeko mailetan. Zeintzuk ziren hari hauek? Bakar batzuk besterik ez dugu ezagutu. 1525ean Juan Perez de Lazarraga —Elorregiko jauna— legazpiarrak, Karlos V. Enperadoreagandik baimena lortu zuen maiorazkoa fundatzeko «egindako

buenos enlaces en la Corte. ¿Cómo se puede si no entender que un diminuto pueblo de doscientos vecinos fuera el primero de toda Gipuzkoa en lograr la desanexión de la villa poderosa —como era Segura— a la que estaba unido?. ¿Cómo pudo después desbaratar las maniobras que Segura —que contaba con muchos y fuertes aliados en la Corte— urdió para que el decreto de desanexión fuera anulado?.

La única respuesta posible para estos interrogantes es que Legazpi supo mover también unos hilos eficaces en las altas esferas. ¿Cuáles eran estos hilos?. Conocemos solamente unos pocos. Ya en 1525 el legazpiarra —señor de Elorregui— Juan Pérez de Lazarraga conseguía del Emperador Carlos V licencia para fundar mayorazgo «en atención a los muchos y leales y señalados servicios que nos habéis fecho y los que esperamos que nos faréis». En 1614, ante las graves dificultades económicas que atravesaba el municipio, se pide ayuda —como se vio más arriba— a Juan de Mecolalde «residente en la Corte» y a la urretxuarra de gran ascendiente en la corte de los Austrias doña Antonia Galdos, viuda de Cristóbal de Ipeñarrieta. Del año 1617 es un hecho muy significativo en cuanto a este tema: don Saturnino Tellería, en su inédita «Historia de Legazpia», lo indica así: «Don Juan de Aguirre-Guevara, señor del palacio Aguirre-Jaúregui de Gaviria y vecino de Legazpia, notable abogado de Gipuzkoa residente en Madrid, notifica a Legazpia el resultado del pleito que esta villa sostenía con Zegama. El Ayuntamiento de Legazpia le contesta que continúe mientras esté en la Corte, y le manda que, cuando venga, lo deje encomendado a alguno de los señores siguientes: Lazarraga, o Galdos, o Martín Aguirre. Acordándose el mismo día 19 de julio de dicho año escribir al señor Miguel de Ipeñarrieta, caballero de Santiago y Secretario del Consejo de Hacienda, protector de Legazpia, el eta egingo dizkiguzuen zerbitzu zehatz, leial eta ugariengatik esker onez». 1614ean, herriko zailtasunak handiak zirela eta, laguntza eskatu zitzaien —arestian ikusi bezala— «Gortean bizi zen» Juan de Mekolalderi eta Austriarren gortean aurrekoak zeuzkan Antonia Galdos urretxuarrari, Kristobal de Ipeñarrieta zenaren alargunari. Gai honi dagokionean, oso egintza esanguratsua da 1617ko hau: Saturnino Telleria jaunak, argitaratu gabeko «Historia de Legazpia» delakoan, honela dauka idatzita: «Juan de Agirre-Gebara jauna, Gabiriko Agirre-Jauregi jauregiko jauna eta Legazpikoa, Madrilen bizi den Gipuzkoako abokatu nabarmena denak, Legazpiri ematen dio aditzera herri honek Zegamarekin zeukan auziaren ondorioa. Legazpiko Udaletxeak erantzuten dio jarrai dezala Gortean dagoen bitartean eta agintzen dio, etortzen denean, kargu eman diezaiola hauetako jaunen bati: Lazarraga edo Galdos edo Martin Agirre. Uztailaren 19an erabakiz Migel de Ipeñarrieta jaunari, Santiagoren zalduna eta Hazienda Kontseiluko Idazkaria, Legazpiren babesle, herriaren esker ona idatziz adieraztea, jaun honek Legazpiri mesede egiten ziolako bere kausetan babestuz eta batez ere, Zegamarekin zeukan auzian». Saturnino Telleria jaunaren pasartea oso interesgarria da eta hein handian argitzen du nortzuk ziren Legazpiren babestaileak Gortean desloturaren inguruko garaian.

Legazpik gortearekin zeuzkan loturen kontuan, eliza parrokiarrean altare nagusiaren eskubikaldean, Gurutzearen kaperaren ondoan dagoen hilobiak eman diezaguke pista bat. 1642an eraiki zuten eta bertan irakur daitezkeen letrek honela diote hitzez hitz: «Renovóle el Dr. Don Juan de Lazarraga, Caballero de la orden de Santiago, del Consejo de S.M. y Alcalde de su casa y Corte, colegial que fue en Santo Spiritu de Oñate, Santa

agradecimiento del pueblo de la merced que le hacía amparándole en sus causas y en particular en el pleito que tenía con Zegama». El párrafo de don Saturnino Tellería es muy interesante, y desvela en buena parte la duda de quiénes eran los protectores de Legazpi en la Corte en época muy próxima a la de la desanexión.

En cuanto a cuál pudiera ser la categoría de los enlaces que tenía Legazpi en la Corte, nos puede dar una pista la sepultura que hay en la iglesia parroquial, a la derecha del altar mayor, junto a la capilla de la Cruz. Fue construída en 1642, y en ella se puede leer una inscripción que dice así: «Renovóle el Dr. Don Juan de Lazarraga, Caballero de la orden de Santiago, del Consejo de S.M. y Alcalde de su casa y Corte, colegial que fue en Santo Spiritu de Oñate, Santa Cruz de Valladolid y Catedrático de Decreto en propiedad en su Universidad. En memoria del Señor Cristóbal Pérez de Lazarraga su padre, contador de Su Majestad en el Tribunal de Cuentas, y de sus ilustres antecesores». Como se ve, el padre de Juan de Lazarraga, de nombre Cristóbal, había sido miembro del Tribunal de Cuentas del Rey, hacia la época en que el abogado Juan de Aguirre-Guevara defiende a Legazpi en un pleito con Zegama. Es posible, por tanto, que el «Lazarraga» (sin más detalles de nombres o apellidos) al que se alude en el escrito del Ayuntamiento dirigido a Juan de Aguirre-Guevara en el año 1617 fuera este Cristóbal de Lazarraga «contador de Su Majestad en el Tribunal de Cuentas».

## D/ PRINCIPALES CAMPOS DE ACTIVIDAD DE LOS BIKUÑA

### 1/ *Escribanos, abogados, militares, marinos,...*

En las páginas anteriores se ha hecho un resumen de la historia de Legazpi. En él van incluídos

Cruz de Valladolid y Catedrático de Decreto en propiedad en su Universidad. En memoria del Señor Cristobal Perez de Lazarraga su padre, contador de su Majestad en el Tribunal de Cuentas, y de sus ilustres antecesores». Ikus daitekeen bezala, Juan de Lazarragaren aita, Kristobal izenekoa, Erregearen Kontu Auzitegiko partaidea izana zen, Juan de Agirre-Gebara abokatuak Zegamarekiko auzi batean Legazpi defenditzean. Daitekeena da, beraz, 1617 urtean Juan de Agirre-Gebarari zuzendutako udalatxean idatziriko idatzian aipatzen den «Lazarraga» hori (izen-deituren xehetasun gehiagorik gabe) Kristobal de Lazarraga hau izatea «Bere Maiestatearen kontatzailea Kontu Auzitegian».

## D/ BIKUÑATARREN GARRANTZIZKO EGINTZA-ALORRAK

### 1/ *Eskribauak, abokatuak, militarrak, marinelak...*

Aurreko orrialdeetan Legazpi herriaren historiaren laburpena egin da. Bertan sartu dira herri honen bizitzaren unerik nabarmenenak. Ez dira une horiek bertan Bikuñatarren askaziko partaideek izandako parte hartzearen arauera aukeratu: horretaz jabetzeko nahikoa da ikustea une horiek ikuspegi zabala, osoa eta orekatua osatzen dutela, historia legazpiarraren nondik norakoari buruz.

Baina nahiz eta gertakarien aukeraketa ezeren araberakoa ez izan, Bikuña izena bertan ageri da hamaika bider. Eta ez denboraldi labur batean soilik, baizik eta lekukotasun idatziak dauzkan mende guztietan barrena. XIII. mendean familia legaz-

los momentos más destacados de la vida de este pueblo. No han sido elegidos esos momentos siguiendo el criterio de la mayor o menor participación que en ellos hayan tenido los miembros del linaje de Bikuña: para convencerse de ello basta con ver que constituyen una visión suficientemente amplia, completa y equilibrada de la trayectoria histórica legazpiarra.

Pero a pesar de la imparcialidad en la selección de los acontecimientos, el nombre de Bikuña salta en ellos una y mil veces. Y no sólo en un corto período de tiempo, sino a lo largo de todos los siglos de los que se conservan testimonios escritos. Desde que en el siglo XIII miembros de familias legazpiarras van a poblar la nueva villa de Segura hasta que en el siglo XIX agonizan nuestras últimas ferrerías, apenas hay una página, una actividad, un trabajo en el que no participen personas del linaje de Bikuña.

A lo largo de seiscientos años, esa participación se ha desarrollado en los terrenos más diversos, y desborda ampliamente, con frecuencia, el ámbito de la vida local. Sin hacer una clasificación demasiado sistemática se aprecia que entre los Bikuñas ha habido:

— Escribanos y abogados como Diego Martínez de Bikuña y Gurrutxategi, que fue escribano real en Legazpi, y alcalde que entre otras obras construyó la primera casa consistorial en 1625; Francisco Diego de Bikuña, también escribano de Legazpi hacia 1750; Ignacio Tomás de Bikuña, escribano hacia 1780; José de Lardizabal y Bikuña, fiscal, oidor y regente de la audiencia de Barcelona y Consejero de Hacienda, que murió en 1776.

— Personas que desempeñan cargos administrativos o políticos: Juan Martínez de Biku-

piarretako kideak Segura herri berrian bizi izatera joatean hasi, eta XIX. mendean gure azken olak hilzorian egon bitartean, ia-ia ez dago orrialderik, ekintzarik edota lanik Bikuñatarren askaziko pertsonek parte hartzen ez dutenik.

Seirehun urtetan zehar, parte hartze hori alorrik ezberdinenetan garatu da eta sobran gainditzen du sarritan bizitza lokalaren esparrua. Sailkapen sistematikoegia egin gabe ikus daiteke Bikuñatarren artean zerak egon direla:

— Eskribauak eta abokatuak, hala nola Diego Martinez de Bikuña y Gurrutxategi, Legazpin eskribau erreala izan zena eta alkatea ere bai eta honexek eraiki zuen, besteak beste, lehenengo Herriko Etxe edo Udaletxea 1625ean; Francisco Diego de Bikuña, Legazpiko eskribaua baita ere 1750 inguruan; Inazio Tomas de Bikuña, eskribau 1780 inguruan; Jose de Lardizabal y Bikuña, Bartzelonako Audientzian agintari, oidore eta fiskala, 1776an hil zena.

— Kargu politikoak edota administral karguak egiten zituzten pertsonak: Juan Martinez de Bikuña Legazpiko Udaletxeko agintaria zen 1608an; Tomas Joakin de Bikuña y Legazpi delegatua izan zen eta, Gipuzkoako Diputazioaren enkarguz, Zumarragan ostatu bat ezartzeak sorturiko auzia konpondu zuen 1721ean; Nikolas de Bikuña, Gipuzkoako Biltzarre Nagusiek 1717an izendatua, Legazpitik Ormaiztegira zihoan errepidea konpontzeko; Migel Joakin de Lardizabal y Amezketa, Gipuzkoa probintziaren ordezkari mugarrien ezarpenaren gorabeherak kon-

ña era regidor del Ayuntamiento de Legazpi en 1608; Tomás Joaquín de Bikuña y Legazpi fue el delegado que, por encargo de la Diputación de Gipuzkoa, resolvió en 1721 el pleito planteado por la instalación de una posada en Zumárraga; Nicolás de Bikuña, nombrado por las Juntas Generales de Gipuzkoa, en 1717, para arreglar el camino real que iba de Legazpi a Ormaiztegi; Miguel Joaquín de Lardizabal y Amezqueta, representante de Gipuzkoa para resolver el amojonamiento de la frontera con Navarra, en 1781 y 1800.

— Militares y marinos: Juan Felipe de Bikuña, capitán que murió en el asedio de Ciudad Rodrigo, en el siglo XVIII; Agustín de Bikuña, capitán de dragones y edecán general, murió en la guerra del Piamonte en el siglo XVIII: Antonio de Bikuña, capitán y gobernador de Cartagena; Tomás Joaquín de Bikuña, teniente general de Nápoles, intendente general de Marina, quien trasladó a Carlos III de Nápoles a España, en 1759, al ser designado rey; sobre todos ellos, Diego Ascensio de Bikuña y Cortaberría, nacido en Legazpi el 10 de mayo de 1657, almirante de la Real Armada, caballero de Santiago, luchó en 1704 contra la escuadra anglo-holandesa del almirante Rooke, en el cabo de San Vicente.

— Eclesiásticos: Martín de Bikuña, párroco de Legazpi en 1480; José de Bikuña y Juan Bautista de Bikuña, sacerdotes en la parroquia de Legazpi en 1700; Manuel de Bikuña y Escudero, hijo de padre legazpiarra, fue predicador general y procurador de la orden Franciscana en Méjico y predicador destacado en Madrid, en el siglo XVIII.

pontzeko Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan 1781 eta 1800ean.

— Militarrak eta marinelak: Juan Felipe de Bikuña, kapitaina, Ciudad Rodrigoko erasoan hila XVIII. mendean; Agustin de Bikuña, dragoi soldaduen kapitaina eta edekan nagusia, Piamonteko gudan hil zen XVIII. mendean; Antonio de Bikuña Cartagenako kapitain eta gobernadore; Tomas Joakin de Bikuña, Napoleseko teniente nagusia, Marinako intendente nagusia, beronek eraman zuen Karlos III.a Napolesetik Espainiara 1759an, errege izendatu zutenean; guztion gaindik, Diego Asentsio de Bikuña y Kortaberria, Legazpin 1657ko Maiatzaren 10ean jaioa, Armada Errealaren almirantea, Santiagoko zalduna, 1704ean borrokatu zuen Rooke almirantearen eskoadra anglo-holandarraren aurka, San Vicente lurmuturrean.

— Elizgizonak: Martin de Bikuña, Legazpiko parrokua 1480an; Jose de Bikuña eta Juan Bautista de Bikuña, apaizak Legazpiko parrokian 1700ean; Manuel de Bikuña y Escudero, aita legazpiardun semea, predikatzaile nagusia izan zen eta Mejikon ordena frantziskotarraren prokuradorea eta predikatzaile nabarmena Madrilen, XVIII. mendean.

— Letretako gizonak: Jose de Frantzisko Martinez de Bikuña, Salamancako San Bartolome kolegiar nagusiak; Jose de Lardizabai y Bikuña, Salamancako Unibertsitateko katedraduna; Juan de Bikuña maisua zen Legazpin 1614ean.

— Hombres de letras: José y Francisco Martínez de Bikuña, Colegiales Mayores de San Bartolomé de Salamanca; José de Lardizabal y Bikuña, catedrático de la Universidad de Salamanca; Juan de Bikuña era maestro en Legazpi en 1614.

## *2/ Industria del hierro*

Si, como hemos visto, aparecen Bikuñas durante varios siglos y en las más diversas actividades, esto es debido en buena parte a que su dedicación a la industria del hierro permitía a estas familias mantener una situación económica desahogada. Esa dedicación se manifiesta no sólo en el hecho de que, como se dirá más adelante, fueran las propietarias de varias de las principales ferrerías legazpiarras, sino que además aparecen a menudo participando directamente en el trabajo diario como ferrones u «olagizonak».

Si se observa el Apéndice C de propietarios de las principales ferrerías legazpiarras, se encuentran miembros del linaje de Bikuña ya en las más antiguas. El primer núcleo de ferrerías de agua o «zehar-olak» se constituyó, hacia el siglo XIII, en la zona de Legazpi más próxima a Aizkorri, en el barrio que hoy se llama Brinkola; eran las de Arabaolaza (Guriditegi), Beinzola o Brinkola, Gibelola (de suso y de yuso), Olazarra y Barrendiola. Como prueba de la vinculación de los Bikuña a algunas de estas ferrerías, se conserva un documento en el que se lee que en 1329, «Pedro de Bikuña y su mujer, vecinos de Legazpia, vendieron a Martín Sanz de Gurrutxategi, vecino del mismo valle, la cuarta parte de la ferrería de Guibelola,...»

¿Cuál pudo ser el motivo por el que los ferrones decidieron poner las primeras ferrerías de

## *2/ Burdingintza*

Ikusi dugun bezala, hainbat mendetan zehar azaltzen dira Bikuñatarrak zereginik ezberdinenetan. Hau zeraren ondorio da: burdingintzari zeuden lotuta eta honexegatik familia hauek egoera ekonomiko lasaia zeukaten. Burdingintzari lotuta egotea ez da soilki nabarmentzen —aurrerago aipatuko den bezala— garrantzizko ola legazpiar batzuren jabeak izan zirelako, zeren eta horrezaz gain, sarritan azaltzen bait dira zuzenean parte hartzen eguneroko lanean olagizon zereginetan.

Ola legazpiar garrantzizkoenen C eranskina begiratuta, Bikuñatarren askaziko kideak topatzen dira aintzinakoenetan. Zeharrolez osaturiko lehenengo gunea XIII. mendearen inguruan osatu zen, Aizkorritik gertuen dagoen Legazpiko aldean, gaur egun Brinkola izena duen auzoan; hauexek ziren: Arabaolaza (Guriditegi), Beintzola edo Brinkola, Gibelola (goikoa eta behekoa), Olazarra eta Barrendiola. Bikuñatarrek hauetako ola batzuekiko zeukaten loturaren froga gisa, bada dokumentu bat eta bertan irakur daiteke 1329 urtean «Pedro de Bikuñak eta bere emazteak, legazpiarrak biak, Martin Sanz de Gurrutxategiri, haran berekoa, Gibelola olaren laurdena saldu ziotela...»

Zein arrazoi zela eta jarri ote zituzten olagizonek lehenengo zeharrolak ibaiaren sorburutik ahalik eta gertuen? Ola haien hondakinak —oraindik ere ikusten direnak— ikustean, iruditzen zaigu iristen zitzaien ur emana, zenbaitetan, ez zela nahikoa edozein instalakuntza indartsu samar mugitzeko. Agian gertuago egon nahiko zuten langaia ematen zien meatokitik; erregaia aurkitzen zuten

agua en la zona del río más próxima al nacimiento de éste? Cuando hoy vemos los restos —que aún se conservan— de ellas, nos parece que el caudal de agua de que disponían era, en algunos casos, muy insuficiente para mover cualquier instalación medianamente potente. Acaso buscaban una mayor proximidad a la zona minera de la que se abastecían; también pudo influir el que allí estuvieran más próximas a los bosques donde encontraban su combustible; podía, incluso, suceder que, al principio, no conocieran muy a fondo la técnica de construcción de presas en el río y, por ello, no se atrevieran a hacerlas donde la mayor anchura de éste podía plantear problemas más serios.

Sean cuales fueren las causas que movieron a ese emplazamiento inicial, el hecho es que, con el tiempo, se van creando nuevas ferrerías río abajo, esas nuevas instalaciones pasan a ser las dominantes por su mayor capacidad de producción y, para el siglo XVI, las primitivas ferrerías próximas al Aizkorri van a desaparecer casi por completo como tales ferrerías. Solamente quedará, durante varios siglos más, la de Olazarra, por su emplazamiento perfectamente elegido en la confluencia del río Urola y de la regata de Barrendiola.

Entre los principales impulsores de ese desplazamiento de las ferrerías río abajo a lo largo de los años, se encontraban los Bikuña. Si —como vimos— ya habían participado en la aparición de las primeras en la cabecera del río, pronto iban a construir y dar nombre a la de Bikuña que trabajaría hasta el siglo XIX. En 1533, en el documento que refleja el amojonamiento de las ferrerías legazpiarras, aparecen como propietarios de la de Bikuña Juan Martínez de Bikuña, Pedro Matínez de Bikuña y Miguel de Bikuña: probablemen-

basoetatik gertu egoteak ere izan zezakeen eraginik; baliteke, baita ere, hasieran ez ezagutzea oso ongi ibaian uharkak egiteko teknika eta, horregatik, ez ausartzea berauek egiten ibaiaren zabalerarik handienak arazo zorrotzagoak sor zitzakeen lekuetan.

Hasierako kokapen hori eragin zuen arrazoia edozein izanik ere, kontua da denbora aurrera zihoan heinean, ola berriak joan zirela sortuz ibaiaren ertzean beherantz. Eraikuntza berriak nagusitu egin ziren beren ekoizpen-ahalmen handia zela eta, eta, XVI. menderako, Aizkorri ondoko garai bateko olak desagertu egin ziren ia-ia zeharo ola zereginetan. Mende batzuk gehiagotan iraungo zuen bakarra, Olazarra izan zen, izan ere, guztiz ongi aukeratuta zegoen bere kokalekua Barrendiola erreka eta Urola ibaia biltzen diren lekuan. Olek ibaian behera egiteko mugimentua eragin zuten bultzatzailerik garrantzitsuenen artean, Bikuñatarrak zeuden. Lehen ikusi bezala, parte hartuak ziren ibaiaren goikaldean lehenengo olen agerpenean eta laister eraiki eta izena emango zioten Bikuña olari, XIX. mendera arte lan egingo zuen hari. 1533an, ola legazpiarren mugarriztapenaz ari den dokumentuan, hauexek ageri dira Bikuña olaren jabe: Juan Martinez de Bikuña, Pedro Martinez de Bikuña eta Migel de Bikuña; seguru asko, aita, semea eta biloba izango ziren ondoko A irudian dagoen zuhaitz genealogikoan ikus daitekeen bezala (Juan litzateke Elbira de Jauregirekin ezkonduta ageri dena, Pedro Teresa de Zabalegirekin eta Migel Maria Migel de Agirrerekin). Urte haren inguruan, eta ezkontza-politika bati esker, burdin legazpiarraren historian funtsezkoa den beste ola bat, Bengolea edo Barrenolea, orain ari garen askaziko gizonen eskuetara pasako zen. Agian sortu zen une beretik, Gurrutxategi familiarena izana zen: 1407an Juan Sanchez de Gu-

